

BOST

EKO

2015

bosteko 2015





Arrigorriaga

Arrigorriagako Erakustaretoa
Arrigorriagako plaza, z/g
Irailak 8 - 28
8 - 28 Septiembre



Basauri

Arizko Dorretxea
Frantzisko Kortabarria, z/g
Irailak 29-Urriak 17
29 Septiembre-17 Octubre



Leioa

Kultur Leioa
Jose Ramon Aketxe Plaza, 11
Urriak 20 - Azaroak 8
20 Octubre - 8 Noviembre



Amorebieta-Etxano

Zelaieta zentroa
Azaroak 10 - Abenduak 4
10 Noviembre - 4 Diciembre



Getxo

Torrene Erakustaretoa
Torrene, 3. Algorta
Abenduak 9-27
9-27 Diciembre

ENTRETEN(i)mendua

Hustasunaren zalantzan murgildutako gaur egungo gizartearen irudia **Fernando Castro Flórez** zor diogu, eta, zehatzago esateko, haren “*Kaka eta katastrofea*” lanari. Aipatutako lan horrek guztiz izenburu indartsua dauka, gero “*Arte garaikidearen sindrome kulturalak*” abizenaren bitartez zehazten dena. Hauxe dio Cáceresko idazleak: “*Literalki, jolas-parke moduko batean harrapatuta geratu gara, desorientatuta dauden beste batzuek inguratuta*”. Ondorio hori sortzen da, **Castrok** gogorazten duenean nolako izua eta asaldura sentitu zuen **Robinson Crusoe**k, oin biluzi baten arrastoa aurkitu zuenean hondartzan. Gerora, oinatz hura egin zuena **Ostiral** izenarekin bataiatu zuen, baina, une hartan, aurpegiak gabeko mehatxua baino ez da antzematen, izenik gabeko ikara, gizaki-gosea ase nahi duen antropofagoari dagokion ustezko jatun-tasunak sorrarazitakoa.

Hori bururatu zait, Bilboko **Guggenheim** Museoko gangen (futuristak?) azpitik paseoan nenbilela; hain zuzen ere, bizirik dauden artista guztietatik, gaur egun gehien kotizatzen den **Jeff Koonsen** erakusketa inauguratu den egun berean. *Puppyren* (txakur loretsu eta beti aldakorra, beti haziak eta nutrienteak jaten aritzen dena, bere landare-azala ez galtzeko) egileak sortutako plastikozko eta eder-usteko objektuen artetik nabilen bitartean, gogoratu dut, denborak premiazu egiten nauelako, Bosteko 2015 erakusketari buruzko lerro batzuk idatzi behar ditudala, sarrera gisa.

Ohiturak duela hiru urtetik hona agintzen duen moduan, programa honen parte diren Kultur Etxeetako programatzaile trebeek hala eskatuta, lehenengo eta behin, hiru artista aukeratzeko ditut, betetzeko zaila izaten den esperantza batek jota: alegia, egile horien testu artistikoak gurutzatzean, zirrikietatik argitu ahal izatea zer gertatzen den gaur egungo euskal artearekin. Gero, aurkezpen ofizial moduko batean elkartzen gara; bertan, ba-

ENTRETEN(i)miento

Le debemos a **Fernando Castro Flórez**, en su “*Mierda y catástrofe*”, rotundo título que luego viene matizado por el apellido de “*Síndromes culturales del arte contemporáneo*”, la imagen de la sociedad actual sumida en la perplejidad del vacío. Dice el escritor cacereño que “*Nos hemos quedado, literalmente, atrapados en una especie de parque de atracciones, rodeados de otros también desorientados*”. Esa conclusión emerge poco después de que **Castro** rememore la sensación de pánico y desquiciamiento que sufre **Robinson Crusoe** al descubrir en la playa la huella de un pie desnudo; la huella de quien luego será bautizado **Viernes** pero de quien, en ese momento, solo se percibe una amenaza sin rostro; un terror sin nombre provocado por causa de su hipotética voracidad de antropófago dispuesto a saciar un hambre de hombres.

Me viene esto a la mente durante el paseo bajo las bóvedas ¿futuristas? del **Guggenheim** bilbaíno justo el día en el que se inaugura la muestra de **Jeff Koons**, el más cotizado de los artistas vivos del presente. Así, mientras recorro las atracciones de plástico y oropel del autor del *Puppy*, ese perro floreado, siempre cambiante, siempre devorador de semillas y nutrientes para no perder su piel vegetal, recuerdo, porque el tiempo apremia, que debo escribir unas líneas de introducción a Bosteko 2015.

Como manda la costumbre desde hace tres años, reclamado por los agentes activos, esos programadores curtidos de las Casas de Cultura que forman parte de este programa, primero escojo tres artistas con la improbable esperanza de que, al entrecruzar sus textos artísticos, se produzca entre sus intersticios alguna capacidad de poder alumbrar qué acontece con el arte vasco del tiempo actual. Luego nos reunimos en una especie de presentación oficial por la que los

tzuk zein besteak, koordinatzaileak eta artistak, elkar ezagutzen hasten dira.

Anfitrioiaren eta aurkezlearen rola betetzen dut. Hori baino lehen, aukeraturako artistek egiten dutenari buruzko seinale batzuk bidaltzen ditut, ordurako saihestezina eta beharrezkoa den topaketa, elkarketa edota batasun hori ahalbidetzeko. Normala den moduan, konbentzitzeko eta limurtzeko aukeratzin ditudan oihartzunak beti izaten dira lasaigarriak, nahiz eta, denok dakigun moduan, inoiz ez diren inuzenteak izaten.

Gertutasunaren itxurapean, gonbidatuek beti izaten dute itxurakeriaren makillajea gainditzeko gaitasun baliotsua. Harrapaezina denarengandik hain hurbil egoteko joera disimulatu gabeagatik erakartzen naute. Denek, guzti-guztiek, onartu egiten dute porrotaren drama, bai eta logikari aurre egiteko erabakia eta arrakasta bazterrean uzteko erabakia ere: beraiek badakite inoiz ez direla **Koons** izango, eta horren beharrik ere ez.

Jokoaren arauak zehaztuta, egutegia doituta eta baldintzak ezarrita, aurkezpen literario hau geratzen zait beti amaierarako; hain zuzen ere, atal honen asmoa da artista horiek zer eskaintzen duten erakusten laguntzea, eta gizarte globalizatu honetan jokatzin duten zeregina zein den ageriaraztea. Zer egin dezakete oinatz desorientatuen azoka honetan, denboran eta ia espazio berean topo egiteko keinu bakoitzeko berrogeita hamar milioi jasotzen dituzten enpresa-artistekin.

Euskal herrixkan bizirik irau daiteke, inperio desnaturalizatuaren tam-tam hotsen azpian? Zailantzarik gabe.

Agerikoa denarengandik urrun

Ana Riaño, Roberto Aguirrezabala eta Iker Serranoren lanak aztertzerakoan, ebidentzia bat nagusitzen da berehala. Bai: beraien obren arteko lotura ahalbidetzen eta areagotzen duen izenda-

unos, coordinadores, y los otros, artistas, se (re) conocen.

Hago el papel de anfitrión y presentador. Antes, he enviado algunas señales de lo que hacen los artistas escogidos para facilitar ese encuentro necesario, esa comunión / unión con, que a esas alturas resulta ya inevitable. Como es natural, los ecos que escojo para (con)vencer y seducir resultan siempre tranquilizadores aunque, todos lo sabemos, nunca son inocentes.

Bajo su apariencia de proximidad los convidados siempre lo son por su valiosa capacidad para traspasar el maquillaje de la apariencia. Me atraen por su mal (in)disimulada querencia por rozar lo inaprensible. Hay en ellos, en todas y todos ellos, la asunción del drama del fracaso, la decisión de desafiar la lógica e incluso el desprecio del éxito: ellos, lo saben, nunca serán **Koons** ni falta que les hace.

Marcadas las reglas del juego, apunta(la) do el calendario y establecidos los requisitos, me queda siempre para el final esta presentación literaria que aspira y debe ayudar a percibir qué ofrecen estos artistas y qué papel juegan en esta sociedad globalizada. Qué pueden hacer en este ferrial de huellas desorientadas que les hacen coincidir en el tiempo y casi en el mismo espacio con artistas-empresa de a cincuenta millones el gesto.

¿Se puede sobrevivir desde la aldea vasca bajo el tam-tam de un imperio desnaturalizado? Sin duda.

Lejos de lo evidente

Al recorrer el trabajo de los tres, **Ana Riaño, Roberto Aguirrezabala** e **Iker Serrano** se imponen de inmediato una evidencia. En efecto, hay un común denominador que facilita y acentúa una conectividad entre sus obras, pero ese encade-

tzaile komuna dago, baina kateatze hori denen arteko berezitasuna ukatu gabe egiten da.

Kasu guztietan bezala, giza figurazioak kateatzen ditu beraien lanak; esan liteke hirurek egiten dutela lan berehala ezagutu daitekeenaren konstataziotik abiatuta, hau da, nagitasunez “erreal” dela diogun horretatik abiatuta. Alabaina, denak ameskeria hutsa dirudi. Erabateko eldarnioa dirudi, eta, kasu bakoitzean, eldarnio horrek ia antagonikoak diren asmo eta planteamenduak izaten ditu.

Har dezagun **Ana Riañoren** kasua. Intrintsekoki piktorikoa den lana egiten du, eta, bertan, soiltasun obsesiboz, artistak funtsezko mailara murrizten du bere adierazpena. Alde batetik, Kale Nagusiko aspaldiko kartelgintzaren eta estreinaldi-egunen izaera berreskuratzen du, eta distantzia jartzen du behatzailearekiko. Baina, aldi berean, ikonoak galbideratzen ditu, kutsatu egiten ditu arlo familiar eta intimoarekin, eta, horrela, erbeste-terate izugarri batetik begiratzen duenaren iruditeria osatzen duten eszenak lantzen ditu. Artistak ondare unibertsal eta publiko horren atalekin (eta hortik abiatuta) hausnartzen du, arte garaikidean puri-purian dauden gaiei buruz: eskuratzea, berri-azketa, egiletzaren balioa eta originaltasuna.

Bere kasuan, **Anak** alterazio esanguratsu baten bitartez egiten du hori; izan ere, paletaren kromatismoa murrizten du, paleta kolorerik gabe utzi arte. Berehalakoa denari buruz hitz egiteko, amets zinematografikoa erabiltzen du, hau da, geu garena osatu duten kontakizun horien erreferente kulturala; izan ere, zibilizazio honek, beldur erreal eta zehatzak konjuru ahal izateko, ikaraldi filmikoak behar ditu.

Horietatik guztietatik, inork ez zuen **Hitchcockek** bezala gauzatu sinesgaiztasunaren suspentsioa konstruktuz zinematikoa eta metahizkuntzarekin, oreka ilunean. Dibertsioa, entseguarekin. Eta, ildo horretan, heldutasun-prozesu zorrotzean, **Ana**

namiento se hace sin negar la singularidad que les atraviesa.

Como en todos los casos la figuración humana engarza sus trabajos, se diría que los tres trabajan a partir de la constatación de lo inmediato reconocible, de eso que llamamos pe- rezosamente lo real. Sin embargo, todo se antoja puro espejismo. Delirio puro que, en cada caso, adquiere intencionalidades y planteamientos casi antagonicos.

Cojamos el caso de **Ana Riaño**. Un trabajo intrínsecamente pictórico en el que, con obsesiva austeridad, la artista reduce su expresión a lo esencial. Por un lado recupera el ánimo del viejo cartelismo de Gran Vía y días de estreno e impone la distancia en el observador. Pero, al mismo tiempo, pervierte sus iconos, los contamina con lo familiar e íntimo para elaborar escenas que conforman el imaginario de quien mira desde un escalofriante extrañamiento. Son fragmentos de ese acervo universal y público con los que (y desde los que) la artista reflexiona sobre temas candentes en el arte contemporáneo: el apropiacionismo, la reescritura, el valor de autoría y lo original.

En su caso, **Ana** lo hace con una significativa alteración, reduce el cromatismo de su paleta hasta despojarlo de color. Para hablar de lo inmediato recurre al sueño cinematográfico, al referente cultural de esos relatos que han conformado lo que somos, una civilización necesitada de sobresaltos fílmicos para conjurar los miedos reales y concretos.

De todos ellos, nadie como **Hitchcock** supo materializar, en un sombrío equilibrio, la suspensión de la incredulidad con el metalenguaje del constructo cinemático. La diversión con el ensayo. Y en ese sentido, en un riguroso proceso de maduración, las pinturas de **Ana Riaño** se han colmado de rumores y amores próximos, de

Riañoren margolanak hurbileko zurrumurruz eta maitasunez bete dira, bai eta kanpoko kutsaduraz eta artistaren zereginari buruzko etengabeko hausnarketaz ere, arlo birtuala eta arlo erreala belztasunean nahasten diren garai honetan.

Iker Serranok *Zaindari bat baso honetarako* izenburua jarri dio hemen bildutako lanaren isla lausoari. Azken batean, nire ustez betidanik hitz egin izan duenari buruz ari da orain ere: bere barne-bidaiari buruz. Beti deskubritzeke dagoen ibilbide misteriotsu horretan, badago homerikoa den zerbait, **Jonathan Swift** apur bat, **Herman Melville** nahikotxo, eta **Robert Louis Stevenson**, **Joseph Conrad** eta, bereziki, **Daniel Defoe** dezentete. Gutxi gogoratzen dute **Defoe**k 1688an, bere azken urteetan hain justu, jarri zuela Robinson sufrutua bidaian, **Ostiralekin** batera, **Ikerren** jaio-terri izandako Iruñerantz. Kasualitatea? Ziurrenik, baina halabeharrak den-dena menperatzen du.

Digresioak aparte utzita, baso honetan berretsita geratzen den moduan, utopia jartzen da egunerokotasunaren aurreko etsipenaren aurretik. Jarrera horren ondorioz, **Iker Serranok** beste mundu batzuk irudikatzen ditu; izan ere, ezohikoa dena imajinatze beharrezana dauka, ohikoa denaren ordenaren aurrean biziraun ahal izateko. Laburbilduz, **Iker Serranok** bidaia zoragarria proposatzen du, eta bidaia horretara inoren konpainiarik gabe sartzen da.

Ana Riañok hurbileko jendearen argiz betetzen ditu bere mihiseak, eta **Iker Serranok** antzeko zerbait egiten du, baina, batez ere, bere burutik abiatuta.

Badakigu testu artistiko oro autobiografiaren gainean eraikitzen dela, baina, horretan, **Serrano** erabateko biluztasunez blaitzen da, inolako artifiziorik gabe. Bere autobiografiak elezaharretakoa dirudien bestiarioa dauka, bai eta aurrez zehaztutako mugarik edo siluetarik gabeko kartografia ere. Bere unibertsoak forma zoomorfikoak ditu:

contaminaciones ajenas y de elucubraciones incasantes sobre el papel del artista en un tiempo en el que lo virtual y lo real se confunden en un fundido a negro.

Iker Serrano titula este tenue reflejo de su trabajo aquí convocado como *Un guardián para este bosque*. En el fondo, de lo que habla es de lo que ha hablado intuyo que desde siempre: de su viaje interior. En ese itinerario misterioso y siempre por descubrir hay algo homérico, una pizca de **Jonathan Swift**, bastante de **Herman Melville** y mucho de **Robert Louis Stevenson**, **Joseph Conrad** y, especialmente, **Daniel Defoe**. Pocos recuerdan que Defoe hizo viajar a su sufrido **Robinson** junto a **Viernes** en 1688, allá en sus últimos años hasta esa Iruña donde nació **Iker**. ¿Casualidad? Seguramente, pero el azar lo domina todo.

Digresiones aparte, lo que hay en este bosque es la ratificación de anteponer la utopía a la claudicación ante lo cotidiano. Una actitud que lleva a **Iker Serrano** a evocar otros mundos; la necesidad de imaginar lo extraordinario para sobrevivir ante el orden de lo ordinario. En suma, **Iker Serrano** propone un viaje maravilloso en el que se adentra solo.

Si **Ana Riaño** llena sus lienzos con luces de su gente cercana, **Iker Serrano** hace algo semejante pero sobre todo, lo hace a partir de sí mismo.

Sabemos que todo texto artístico crece sobre la autobiografía pero eso en **Serrano** se impregna de una desnudez plena, de una total ausencia de artificio. Es la suya una autobiografía acompañada por un bestiario de fábula y una cartografía sin límites ni contornos prefijados. Su universo adquiere formas zoomórficas: cebras, zorros... para exponer la necesidad de ahondar en sí mismo.

Así, en sus lienzos, los colores saltan, las figuras arden y sus relatos configuran espacios

zebrak, azeriak... bere baitan sakontzeko beharri-zana azaleratzeko.

Hori horrela, bere mihiseetan, koloreek salto egiten dute, figurak sutan daude, eta bere kontakizunek ezinezko espazioak osatzen dituzte, jolaserako agertoki bihurtu arte; bertan, haurtzaroko orbanak balira bezala, izan ginenaren gaineko sentazioak sumatzen dira.

Ana Riaño zinemarekin uztartzen du bere bertso plastikoa, **Iker Serrano** testu ilustratuek gaztearen begiradan pizten duten liluraz inguratzen da, eta **Roberto Aguirrezabalak** argazki-kamera erabiltzen du Historiaren babesarekin, Pentsamenduaren zerbitzurako eta Artearen alibiarekin. Gauzak horrela, denetatik margolaritzat gutxien jo daitekeenak (ez baita margolaria) XX. mendeko denboraren erlikietan arakutzen du, bere akatsen bitartez, bere izuak aletuz, eta, argiaren zauritik, edozein kronologia edo espaziotatik aparte dauden mamu horiek gaur egungo garaian irudikatuz.

Roberto Aguirrezabalak, beste zenbait alditan, erretratua paisaiarekin lotu izan du (horiek dira arte piktorikoaren bi fase erabakigarriak), eta barrokoaren gainean ibili izan da balantzaka, lanbroak eta lainoak hedatuz, baitaratzeak eta suminaldiak zabalduz, eta, oraingoan, Bosteko 2015 erakusketaren hitzordura etortzeko, bere sorkuntza-lanetan maiz errepikatzen den gaia azalera-tuz: gizakia, testuaren aurrean. Hiru irakurle. Hiru liburur. Hiru denbora. Babesgabatasun bat.

Edo, beste modu batean esanda, gizakiaren gaitasuna hitzaren (hitz idatziaren) bitartez bere burua gainditzeko, mugimendu- eta ezagutza-prozesu gisa. Errebelazioaren unea, existentziari zentzua ematen dion segundo erabakigarri hori da **Roberto Aguirrezabalak** urteak daramatzana irudikatzen, hain zuzen ere.

Haren argazkietan, eszenaratzea, estrategia eta erreferentziak daude: aurreikuspena, horni-

imposibles, escenarios de juegos en los que, prendidos como viejas cicatrices de la infancia, se adivinan sensaciones de lo que fuimos.

Y si **Ana Riaño** conjuga su verso plástico con el cine e **Iker Serrano** se rodea de la fascinación que ejerce en la mirada juvenil los textos ilustrados, **Roberto Aguirrezabala**, utiliza la cámara fotográfica con el respaldo de la Historia, al servicio del Pensamiento y con la coartada del Arte. Así, el menos pintor de todos, de hecho no lo es, es quien bucea en las reliquias del tiempo del siglo XX a través de sus errores, desmenuzando sus horrores para, desde la herida de la luz, recrear en tiempo presente esos fantasmas ajenos a cualquier cronología o espacio.

Roberto Aguirrezabala que, en otras ocasiones ha abrochado el retrato al paisaje, los dos estadios decisivos del arte pictórico, para balancearse sobre el barroco con despliegue de brumas y nieblas, de ensimismamientos y arrebatos, acude aquí a esta cita de Bosteko 2015 con un tema recurrente en sus creaciones: el ser humano enfrentado al texto. Tres lectores. Tres libros. Tres tiempos. Un desamparo.

O dicho de otro modo, la capacidad de la condición humana para trascender a través de la palabra (escrita) como proceso de movimiento y conocimiento. El instante de la revelación, ese segundo decisivo que da sentido a la existencia es lo que **Roberto Aguirrezabala** lleva años representando.

En sus fotografías hay puesta en escena, estrategia y referencias: previsión, provisión y objetos. Del mundo de **Fellini** a los textos de **Spengler** y **Nietzsche** todo obedece a un ejercicio reflexivo. Nada aparece porque sí, todo significa y todo recuerda para reiterar que la fotografía también puede intentar adentrarse en el terreno abstracto de la mente y sus laberintos.

Al final de este trayecto, si se recorren con detenimiento todas y cada una de estas pro-

dura eta objektuak. **Felliniren** mundutik hasi eta **Spengler** eta **Nietzscheren** testuetaraino, dena dago jarduera erreflexibo baten menpe. Ezer ere ez da agertzeagatik agertzen, denak du esanahi bat eta denak gogorazten digu zerbait, agerian uzteko argazkigintza ere saiatu daitekeela buruaren eta bertako labirintoen lurralde abstraktuan sartzen.

Ibilbide honen amaieran, proposamen hauek guztiak patxadaz aztertuz gero, melankolia-sentimendua nagusitzen da. Beste garai batzuetako pertsonaiek, ametsek eta bidaiek zalantzaz betetako oraina argitzen dute, eta, bertan, hiru euskal artistek beren buruei galdetzen diete zein den artearen erantzukizuna, zeintzuk diren artearen mugak, eta nolakoa den orainaldi latz hau, iraganeko beste garai batzuk izan ziren bezala, zeintzuetan oin biluzi baten arrastoak, hurkoaren presentziak, astinaldiak sorrarazten baitzituen.

puestas, un sentimiento de melancolía se impone. Personajes, sueños y viajes de otros tiempos alumbran un presente incierto en el que tres artistas vascos se cuestionan por la responsabilidad del arte, por sus límites y por un presente que se antoja condenadamente difícil como lo fueron aquellos otros tiempos en los que una huella de un pie desnudo, la presencia del otro, provocaba estremecimientos.

Bilbao, 10 junio 2015

Juan Zapater

BOST

EKO

2015

ANA RIAÑO
IKER SERRANO
ROBERTO AGUIRREZABALA



Ana Riaño (Bilbao, 1985) Bilbon bizi da, eta bertan jaso du prestakuntza artistikoa. 2008an lortu zuen lizentzia, Leioako Arte Ederren Fakultatean, pintura eta grabatuko espezializazioan. Hainbat tailer egin ditu, besteak beste, Manu Arregui, Dora Salazar, Begoña Zuberu eta Imanol Marrodánek.

Bestalde, 2011n egoitza-beka izan du Bilbao Arte Fundazioan. Bere artelanek hainbat aldiz jaso dituzte aipamenak, hala nola, "Pintura, Eskultura eta Arte Digitaleko Bancaja Nazioarteko Saria" eta "Ertibil Bizkaia". 2014an, Bizkaiko Foru Aldundia-
ren ekoizpen-beka lortu zuen, eta, urte horreketan, finalista izan zen Errioxako Wurth Museoko "Estudio 120m" eta Venezia Arte Laguna Nazioarteko sarian, eta Madrilgo Galeriko "Aquí y Ahora" ekitaldian hautatu zuten. 2015ean, finalista izan da Caja de Extremaduraren Obra Abierta Arte Plastikoen Nazioarteko Sarian (Plasencia, Cáceres), eta MUA - Alacanteko Unibertsitateko Museoren "Muliers Mulieris" deialdian, eta Madrilgo New Galleryko "La New Fair" ekitaldian parte hartzeko hautatu dute.

Toki hauetan izan ditu artelanak ikusgai: Getxoarte eta Ibilarteren bi edizioak (2009-2010); Centro de Arte Palacio Almudí, Murtzia, IVAM, Sala de la muralla (2009-2010); Errioxako Wurth Museoa; Eibarko Museoa; New Galleryko "La New Fair" ekitaldia; Blanca Soto Galeria; Plasenciako Palacio Almudí Kultur Zentroa; Cáceres; eta MUA Alacanteko Unibertsitateko Museoa. Horrez gain, nazioarteko erakusketa batzuetan izan da, esate baterako: "La Gran Vasca", Palermo, Sicilia; Artower Gallery, Atenas; Galería "El Tunel", Guatemala Hiria; eta Rozas Botrán Fundazioa, Guatemala (2014).

www.anarianoo.com

Ana Riaño (Bilbao, 1985) vive y trabaja en Bilbao, donde también ha realizado su formación artística. En 2008 se licenció en la Facultad de Bellas Artes de Leioa, habiendo cursado la especialidad en pintura y grabado. Ha cursado diferentes talleres con Manu Arregui, Dora Salazar, Begoña Zuberu, Imanol Marrodán entre otros.

También en Bilbao ha sido becario-residente en la Fundación Bilbao Arte durante 2011. En varias ocasiones sus obras han sido reconocidas con menciones en el "Premio Internacional Bancaja de Pintura, escultura y Arte Digital" y "Ertibil Bizkaia". En el 2014 obtuvo la beca de producción de la Diputación Foral de Bizkaia y ese mismo año fue finalista en el "Estudio 120m" en el Museo Wurth de La Rioja y en el premio Internacional Arte Laguna, Venecia y seleccionada en "Aquí y Ahora" de la galería Blanca Soto, Madrid. En 2015 ha sido finalista en "Obra Abierta Premio internacional de Artes Plásticas Caja de Extremadura 2015" Plasencia, Cáceres, en la convocatoria "Muliers Mulieris" del MUA, Museo de la Universidad de Alicante y ha sido seleccionada para la participación en "La New Fair" en la New Gallery, Madrid.

Su obra se ha expuesto en las dos ediciones de Getxoarte e Ibilarte (2009-2010), en Centro de Arte Palacio Almudí, Murcia, IVAM. Sala de la muralla. (2009-2010) en el Museo Wurth La Rioja, en el Museo de Eibar, en "La New Fair" de la New Gallery, en la Galería Blanca Soto, en el Centro Cultural Palacio Almudí de Plasencia, Cáceres y en el MUA Museo de la Universidad de Alicante. También ha realizado algunas exposiciones internacionales como por ejemplo en la sala de exposiciones "La Gran Vasca" Palermo, Sicilia, en Artower Gallery, Atenas; Galería "El Tunel" Ciudad de Guatemala y en la Fundación Rozas Botrán Guatemala (2014).

Historia, gure historia, fikziozko gakoekin dabilen kontakizuna da. Bestela esanda: ez dago benetako desberdintasunik fikzioaren eta oraina ez den denboraren artean; ez dago muga argirik iraganaren eta asmatu, amestu eta sortutakoaren artean. Gure esperientzia pertsonalari eta fikzioa harekin kateatzeko duen moduari dagokienez, gehiegizka aritzeko arriskurik gabe esan genezake fikzioan ibilitako lurak gure iraganekoak direla, eta ez dagoela muga argirik egia eta gezurra bereizteko. Era berean, esan dezakegu kontakizunek eta fikzioek emandako hazkurriari esker hazi ginela eta bizi garela gaur egun, amets horiek gure nortasunaren zati garrantzitsua baitira nahitaez.

Ildo horretan, bistan denez, fikzioa gure baitako zatia da. Alabaina, zenbateraino gara gu haren zatia? Ikusleari dagokionez... nortasunezko ekuazio horrek ez al du atzerakorik? Horixe da nolabait ere Ana Riañoren lana egituratzen duen galdera (Bilbao, 1985). *Modus operandi*-a erraza da: Ana Riaño bere koadroetan birsortzen dituen filmen fotogramak erraz ezagutuko ditu ikusleak, eta berriz interpretatuko ditu, aktoreen ordeaz bere familia-inguruneko pertsonak -gurasoak, anaia-arrebak, lagunak- jarritz. Era horretan, Ana Riañoren koadroetan errealtatea eta fikzioa esanahiaren plano berean batzen (eta nahasten) dira. Bizitzak eta obrak (besterenak, ikusle gisa) bat egiten dute.

Nolabait ere, Ana Riañoren lanari dagokion une historikoan, oinarritzko eztabaida -mundu osoan- honelako kontzeptuen inguruan doa: egiletza, jabetza intelektual, sormenezko aurrekari berrinterpretazioa, ikuslearen zeregina, kulturaren jabetza edo kontsumoa, etab.

Laburbilduz, hauxe da eztabaidagai: kultura zein neurritaraino dagokigun, gu hari bezala.

La historia, nuestra historia, es un relato que funciona con claves de ficción. Dicho de otra manera: no hay diferencia real entre la ficción y el tiempo que no es presente, no hay una barrera tan nítida entre lo pasado y lo inventado, lo soñado, lo creado. Respecto a nuestra experiencia personal y a cómo la ficción engarza con la misma, podríamos decir, sin riesgo a exagerar, que los terrenos recorridos en la ficción pertenecen a nuestro pasado sin que haya una nítida frontera que discierna entre verdad y mentira. Podemos decir que crecimos y vivimos hoy del alimento que nos aportan relatos y ficciones, sueños que, queramos o no, son una parte importante de nuestra identidad.

En ese sentido, la ficción forma parte de nosotros, es evidente. Pero, ¿hasta qué punto formamos nosotros parte de ella? En lo tocante a la persona espectadora... ¿es reversible esa ecuación identitaria? Esta es la pregunta que de alguna manera articula el trabajo que Ana Riaño (Bilbao, 1985). El *modus operandi* es sencillo: Ana Riaño recrea en sus cuadros fotogramas de películas perfectamente reconocibles para el espectador, reinterpretándolas mediante la sustitución de los actores por retratos de personas de su entorno familiar -padres, madres, hermanos, amigos-. De ese modo, en los cuadros de Ana Riaño realidad y ficción se co-funden (y confunden) en un mismo plano de significado. Vida y obra (ajena, como espectador) se unen.

En cierto sentido, el trabajo de Ana Riaño se inscribe dentro de un momento histórico donde el debate fundamental -y de dimensión mundial- se articula en torno a conceptos como la autoría, la propiedad intelectual, la reinterpretación de los precedentes creativos, el papel del espectador, su posesión o consumo de la cultura, etcétera. En resumen, lo que está en debate (y en juego) es hasta qué punto la cultura nos pertenece del mismo modo que nosotros le pertenecemos a ella.



Cuando está aparcado

Akrilikoa eta olio-pintura mihisean / Acrílico y óleo sobre lienzo
200 x 100 cm



Cuando están cenando

Akriliko eta olio-pintura mihisean / Acrílico y óleo sobre lienzo
200 x 100 cm



Cuando están en la cama

Akriliko eta olio-pintura mihisean / Acrílico y óleo sobre lienzo
200 x 100 cm



Iker Serrano Bilbao eta Basauri artean bizi da, eta bertan lan egiten du. Arte Ederretan lizentziatu zen EHU/UPVtik, eta doktoregaia da unibertsitate berean, pinturari buruzko doktorego-tesia egiten ari baita. Irakasle artista da Kultur Basaurin.

2007an erakusketak egiteari ekin zion, hainbat beka eta sari eskuratu zituen, eta horiek bidea eman zioten Estatuko zenbait zirkuitutan lanak ikusgai jartzeko. Sari nabarmenenak aipatzearren, 2009an Iruñeko Artista Gazteen 2. Saria eskuratu zuen, eta 2011n Nafarroako Artista Gazteen 1. Saria. 2010ean, Eusko Jaurlaritzaren doktorego aurreko beka lortu zuen, doktorego-proiektua egiteko. Urte berean, egoiliarra izan zen Bilbao Arte Fundazioan. 2011n, Bizkaiko Foru Aldundiaren Ekoizpen Beka jaso zuen. 2012an, Eusko Jaurlaritzaren arte plastikoko argitalpenetarako diru-laguntza eskuratu zuen, eta, 2014an, ISOLARIOS proiektua aurkeztu zuen horri esker.

2007an, *The Golden Age* proiektua aurkeztu zuen Getxoarteko Arte Sortu Berrien Aretoan. Hurrengo edizioan ere hartu zuen parte. 2009an, Inmersiones-en esku hartu zuen, eta bere hurrengo proiektuak prestatu zituen. 2010ean, banakako erakusketak jarri zituen: *Boxing Painters* proiektua Iruñeko Zitadela, BilbaoArten egoiliar gisa, eta *Entre Cazador y Observador* Gasteizko Montehermoso Kulturunean. Hurrengo urtean, *Viaje e Isla* banakako proiektua aurkeztu zuen BilbaoArte Fundazioan, eta, 2012an, *Viaje / Isla 2.1.*, Windsor Kulturgintza Galerian. 2013an, *El Guardián del Bosque* proiektua prestatu zuen, 2014an Madrilgo Utopia Galerian eta Bilboko Rekalde Aretoan aurkezteko. 2015ean, *Lur Zati Bat* proiektua aurkeztu du Bilboko LaTaller Galerian.

Taldeko erakusketa askotan hartu du parte, Bilbon, Nafarroan, Madrilan, Bartzelonan eta beste hiri eta herri batzuetan.

www.ikerserrano.com

Iker Serrano vive y trabaja en Bilbao y Basauri. Es licenciado en Bellas Artes, doctorando por la EHU-UPV en pintura donde realiza su tesis doctoral. Profesor Artista en Kultur Basauri.

En 2007 comienza su carrera expositiva ganando premios y becas que le permitirán mostrar sus trabajos en diferentes circuitos nacionales. Entre sus premios más relevantes, en 2009 obtiene el 2º Premio de Jóvenes Artistas de Pamplona y en 2011 el 1º Premio de Jóvenes Artistas de Navarra. En 2010 obtiene la beca predoctoral de Gobierno Vasco para la realización de su proyecto doctoral. En el mismo año es residente en la Fundación BilbaoArte fundazioa. En 2011 recibe la Beca de Producción de la Diputación Foral de Bizkaia. En 2012 obtiene la subvención para publicaciones en Artes Plásticas de Gobierno Vasco, con la que presento su proyecto ISOLARIOS en 2014.

En 2007 presenta su proyecto *The Golden Age* en el Salón de las Artes Emergentes GetxoArte. Participa igualmente en la siguiente edición. En 2009 participa en Inmersiones y prepara sus siguientes proyectos. Expone en 2010 individualmente en la Ciudadela de Pamplona su proyecto *Boxing Painters*, en BilbaoArte como residente y *Entre Cazador y Observador* en el Centro Cultural Montehermoso de Vitoria. Al año siguiente presenta su proyecto individual *Viaje e Isla* en la Fundación BilbaoArte. 2012 *Viaje / Isla 2.1.* en la Galería Windsor Kulturgintza. En 2013 prepara su proyecto *El Guardián del Bosque* y presentarlo en 2014 en la Galería Utopia Parkway de Madrid y en la Sala Rekalde de Bilbao. En 2015 presenta su proyecto *Lur Zati Bat* en la Galería LaTaller de Bilbao.

Ha participado en diversas exposiciones colectivas tanto en Bilbao, Navarra, Madrid, Barcelona y demás ciudades y localidades.

Zaindari bat baso honetarako

